

1. Soziolinguistikaren eta hizkuntza politika eta plangintzaren oinarriak 2. jarduera: soziolinguistikaren definizioa eta azterketa esparruak

Irakurgaia: Etxebarria, M. (2000). Principios y fundamentos de sociolingüística. Bilbo: UPV/EHU. [2. El nacimiento de la Sociolingüística. 41-56 or.].

Erantzun beharreko galderak:

1. Etxebarriak 41-42-43 orrialdeetan argudiatzen du hizkuntzaren azterketa sinkronikoak, halaber, hizkuntzaren “heterogeneitatea” erakusten duela. Hain zuzen ere, hizkuntzaren errealitate “heterogeneoaren” analisia egiteko, bere ustez, ez da nahikoa “Lingüística estricta” edo “Hizkuntzalaritza zentzu hertsian”.

a) Azal ezazu zeri deitzen dion Etxebarriak “hizkuntzaren heterogeneitatea”.

b) Zer da “Lingüística estricta” edo “Hizkuntzalaritza zentzu hertsian”? Zer dela eta “hertsia”-ren zentzua? Zeri “hertsia”?

a) Hizkuntzaren “heterogeneitatea”-z hitz egitean M. Etxebarriak nire ustetan esan nahi duena da hizkuntzen arteko oinarriko antzekotasunak daudela, baina baita aldeak ere. Berak dioen bezala: munduko hizkuntzen mapa, hizkuntza bakoitzaren okupazio espazioa, hizkuntza erabiltzen diren esparruen aniztasuna, ezartzen zaizkion behar komunikatiiboak, erabiltzen dutenen biografia... ez dira beti berdinak. Aldakorrak izan daitezke kontzeptu guzti hauek, bai hizkuntzaren baitan eta baita hizkuntzen arteko egoeran ere.

b) Hizkuntzaren heterogeneitatea izan da historian zehar “hizkuntzalaritzak zentzu hertsian” aztergai izan duen adarra, ordura arte behintzat, idatzitako hizkuntzari zegokion ikerketa esparrura mugatu baita; horren harira hasten dira hizkuntzalari estrukturalista eta generatibistak psikohizkuntzalaritza, idatzizkoa, pragmatikoa eta soziolinguistikoa besteak beste kontuan hartzen, aztertzen eta eztabaidatzen.

2. 1970. hamarkadaren bueltan, zein zen soziolinguistikatik gramatika sortzaileari eta estrukturalismoari egiten zitzaion kritika nagusia? (43. or.).

Labovek konkretuki, ez zuen aipamen sozialik gabeko hizkuntzalaritzaren baliozko definizioirik ulertzen, eta horregatik hasiera batean gramatika mota hauen kontra eta soziolinguistikaren defendatzaile sutsutzat kokatu zen 1972an.

3. Soziolinguistikaren barruan hiru esparru edo ikusmolde nagusi bereizi izan dira: aldakortasunaren soziolinguistika edo soziolinguistika bariasionista, hizkuntzaren soziologia eta hizketaren etnografia. Azal ezazu bakoitza zer den eta zein duen aztergaia (45-46. or.).

Aldakortasunaren soziolinguistikak beharrezko ikusten du hizkuntza erabiltzen duen komunitatearen eta elkarulertzeko erabiltzen diren baliabideen ezagutza. Esparru hau aztergai dutenek ez baldin badituzte komunitatearen egunerokotasuneko hizkuntza erabilerak ulertzen, ez dutelako hiztunaren komunikatzeko era bere osotasunean ulertuko.

Hizkuntzaren soziologiak jarrera linguistikoek hitzunen arteko harreman sozialak ulertzen nola lagun gaitzaketan aztertzen du, besteak beste: bazterketa sozialak, inklusioa... Hizkuntzaren jarrerak gizartearekiko giltza bihurtzen dira ikuspuntu honen arabera.

Hizketaren etnografiak hizkuntza hitz egiten den komunitatearen egoera sozio-kulturala oinarritzat harturik, hitzunen arteko interakzioa hartzen du kontutan.

4. 48-49 orrialdeetan Etxebarriak azaltzen du bariasionismoa ulertzeko bi modu behintzat badaudela, Labov eta Berrutori erreferentzia eginez. Azal ezazu bakoitza.

Berrutok bariasionismoa zalantza soziolinguistiko guztien izendatzaile komununa izatera pasa litekeela, eta hortaz, 3. ariketan azaldutako kontzeptuak soziolinguistikaren ikuspuntutik soilik ikus daitezkeela dio; Labovek aldiz, kontzeptu berberak hizkuntzalarien, fonetikarien eta beste hainbat pentsalarien ikuspuntutik ikus daitezkeela uste du.

5. Etxebarriak nola justifikatzen du bariasionismoa eta hizkuntzaren soziologia, biak ala biak, “están condenados a entenderse” (50. or.)? Zein dira bataren eta bestearen mugak, adibidez, elebitasunarena bezalako auziak aztertzeko orduan?

Finean elkar ulertzeko gaitasuna dutela badiu, da, hizkuntza erabiltzen duen komunitatearen komunikazio baliabideen ezagutza eta jarrera linguistikoek hitzunen arteko harreman sozialak ulertzeko ematen digun ikuspuntua elkargurutzatzen direlako, haien artean aldeak egon badauden arren, elkarbanatu eta kontzeptu batzuk partekatzen dituztelako.

6. Dialektologiaren eta soziolinguistikaren aztergaiak berberak ote dira? “Soberan” ote dago bata ala bestea? Azal ezazu auzi hau. (50-51. or.).

Ez, dialektologiak eremu geografiko eta fisiko bateko hizkuntza aldaketak aztertzen ditu, soziolinguistikak hizkuntzak eta gizarteko jarrera eta aspektu desberdinek duten eragina aztertzen duen bitartean. Hortaz, uste dut ez bata eta ezta bestea ere ez daudela soberan baina ez dutela zertan gainjarri, hau da, nahikoa aztergai badutela independenteki azterketak egiteko, baina elkarren beharra garrantzitsua dela bataren zein bestearen azterketa horien erantzunak osatzeko, ez baitu uste eremu geografikoari dagokion auziak gizartearen portaerak kontutan hartu behar ez dituenik, eta ezta alderantziz ere.

7. Etxebarriak 51. orrialdean López Moralesen lan bat hartzen du adibidetzat, erakusteko dialektologiak eta soziolinguistikak, bakoitzak bere ikerketa esparrua izan dezakeela. Eman azalpenak.

Lopez Moralesek dialektologiari lokalizazio geografikoari (diatopikoari) eta diastratikoari dagozkion ikerketa esparruak esleitzen dizkio; eta soziolinguistikari aldiz, komunikatzen ari garena nori eta nola komunikatzen ari garen.

8. Etxebarriak zergatik kokatzen du hizketaren etnografiaren ikerketa korrontea pragmatikatik (53. or.) eta diskurtsoaren analisitik (54. or.) gertu? Azaldu arrazoiak.

Soziolinguistika komunikazioaz eta honen aspektu linguistikoek soilik arduratzen dela dio, baina pragmatikak eta diskurtsoaren analisiak funtzio komunikatiboak dituzte aztergai. Historian zehar erregistroak adibidez bai pragmatikan eta baita soziolinguistikan ere ikerketa eta eztabaidagai izan dira.

9. Etxebarriak “Hizkuntzalaritza” eta “Soziolinguistika” bereizten ditu 54-55 orrialdeetan. Zein dira bere argudio eta azalpenak?

Soziolinguistikak hizkuntzak diakronikoki nahiz sinkronikoki euren kontestu sozialean aztertzen dituen disziplina dela dio M. Etxebarriak; hizkuntzalaritza aldiz hizkuntzen sistemen analisisian oinarritzen dela dio, erabiltzaileek osatzen dituzten komunikazio esparruak kontuan hartu gabe.